



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Udalbatza eratzeko batzarra

Deialdia: Lehena

Eguna: 2019/06/15

Ordua: 11:00

Lekua: Izurtzako Udaleko Batzargela

BERTARATUTAKOAK:

EVA MARIA MUÑOZ IRASUEGI (EH BILDU)

OIHANE IRASTORZA ALZOLA (EH BILDU)

JON OTADUY ALDECOA (EH BILDU)

MIKEL MARTINEZ BLANCO (EH BILDU)

IKER BALLARIN ZUFIAURRE (EH BILDU)

AROA GONZALEZ URIARTE (EAJ PNV)

BAKIRTZE MIOTA SAGASTAGOIA (EAJ PNV)

Idazkaria:

LEIRE UCIN SORALUCE

AZTERGAIK

GAI BAKARRA: UDAL KORPORAZIO BERRIAREN ERAKETA.

ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK

1. Adin-mahaia eratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. atalak diotenari jarraiki, zinegotzi-agiriak Idazkariari eman ondoren, bertaratutako zinegotzietatik zein den gazteena eta zein zaharrena aztertu da, bi zinegotzi horiek Adin-mahaia osa dezaten, udal-idazkariarekin batera.

Adin-mahaia era honetan eratu da:

Zinegotzirik zaharrena, Eva Maria Muñoz Irasuegi.

Zinegotzirik gazteena, Oihane Irastorza Alzola.

Idazkaria, Leire Ucin Soraluze.

2. Udalbatza eratzea

Adin-mahaiak zinegotzi-agiriak aztertu ditu eta zinegotzi hautatuen gehiengo osoa dagoela egiaztatu du, guztira diren zazpi zinegotzi hautatuak bertaratu baitira eta zinegotzi karguaren jabetza hartzeko legezko tramite guztiak bete ondoren Adin-mahaiak udalbatza eratutzat jo du, honako hau delarik kargua hartu duten udalbatzarkideen zerrenda:

Aroa Gonzalez Uriarte

Bakirtze Miota Sagastagoia

Jon Otaduy Aldecoa

Mikel Martinez Blanco

Iker Ballarin Zufiaurre

Oihane Irastorza Alzola

Eva Maria Muñoz Irasuegi

Jarraian, Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195 artikulua eta ROFeko 36.2 artikulua xedatzen duten bezala, idazkariak kontaktaren agiria, udalak dirutan nahiz baloretan dituen balioen egiaztagiriak eta ondarearen inbentarioa udalbatzarrari aurkeztu dizkio, zinegotziek azter ditzaten.

Jarraian, Ekainaren 19ko 5/1985ko 108. Artikuluan xedatzen den bezala, zinegotziek zin egiten dute, horrela:

“Hitz ematen edo zin egiten duzu zure kontzientzia eta ohorearengatik zinegotzi karguari dagozkion betebeharrak beteko dituzula, erregearenganako leialtasunez eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula”

Zinegotzi hautatuak, hurrengo hurrenkera honetan, zin egin diote:

Iker Ballarin Zufiaurre. Legeak agintzen duelako, bai.

Oihane irastorza Alzola. Legeak agintzen duelako, bai.

Mikel Martinez Blanco. Legeak agintzen duelako bai.

Ion Otaduy Aldecoa. Legeak agintzen duelako bai.

Eva Maria Muñoz Irasuegi. Legeak agintzen duelako bai.

Bakirtze Miota Sagastagoia. Legeak agintzen duelako bai.

Aroa Gonzalez Uriarte. Legeak agintzen duelako bai.

Ondorioz, IZURTZAKO UDAL GOBERNUA eratutzat ematen da.

3. Alkatea aukeratzea

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. atalari jarraiki, Adin-mahaiak alkatea aukeratzeko baldintzak gogorarazi ditu:

Zinegotzi diren zerrendaburuak dira hautagai.

- Lehen bozketan, zinegotzi guztien gehiengo osoa lortzen duena izango da alkate.
- Horrela ez balitz, udal hauteskundeetan gehien bozkatutako zerrendako buru den zinegotzia izango da alkate.

Horrela bada, Eva Maria Muñoz Irasuegi (EH BILDUKoa) eta Aroa Gonzalez Uriarte (EAJ-PNVkoa) zerrendaburu direlarik, isilpeko bozketari ekin zaio, eta hona bakoitzak lortutako botoak:

Eva Maria Muñoz Irasuegi, 5 boto.

Aroa Gonzalez Uriarte, 2 boto.

Gehiengo osoa lortu duenez, Eva Maria Muñoz Irasuegi andrea hautatu da alkate.

Ondoren, Eva Maria Muñoz Irasuegi andreak onartu egin du alkate izatea. Horrela bada, udalbatzarra aurrean duela, agindu ere agindu du kargu hori beteko duela, kargu horrek berekin dakartzan ahalmen, eskubide eta betebeharrak guztiekin. Horrenbestez, Eva Maria Muñoz Irasuegi hartu egin du alkate-kargua.

Jarraian Alkateak hitza hartu du eta hurrengo adierazi du:

“Lehenik eta behin, eskerrik asko guztioi gudan jarritako konfiantzagaitik.

Herrian, herriarekin eta herriarentzat lan egitea da gure helburua.

Aurreko legegintzaldian hasitako proiektuetan eta Izurtzan sortuko diren etorkizuneko beharrezanetan ilusio handiarekin lanean jarraituko dugu. Honetarako orain arte bezela zuen parte-hartzearekin kontaktu nahiko genuke.

Izurtzarrek badakite udala denona dela, eta beti egongo garela prest hobetzeko balio duten edozein ekarpen jasotzeko.

Gobernu talde honek bere eskuetan dagoen guztia eginez, herria egunetik egunera garatu eta hobetzeko konpromisoa hartzen du.

Gora Izurtzarrok

Horrenbestez, alkateak amaiera eman dio bilerari, eta erabakitakoa jasota geratzeko agiri hau egiten dut.

Alkatea O.E



Idazkaria

